

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Astelehenean irekiko da "Bertatik mundura" eleaniztasun jardunaldian izen-ematea

Irakasleei zuzenduriko jardunaldia Iruñeko Planetarioan izango da apirilaren 21ean, eta hizkuntzen elkarbizitzan aditu diren katedradunek hartuko dute parte

Larunbata, 2018.eko apirilak 7

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza departamentuak datorren apirilaren 21erako "Bertatik mundura" [eleaniztasun jardunaldia](#) antolatu du Nafarroako ikastetxeetako irakasleei zuzenduta. Parte hartzeko asmoa dutenek astelehenetik, hilak 9, apirilaren 19ra arte dute izena emateko aukera.

Nafarroako Foru Erkidegoa gizarte eleanitza dago eta geroz eta hizkuntza gehiagok osatzen duten ingurunearen errealitate linguistikoa. Ikastetxe eta irakaskuntza proiektuen erronka bihurtu da errealitate horren kudeaketa. Hala, errealitate hori eguneroko gizartera egokitze azterketa da, beraz, apirilaren 21ean egingo den jardunaldiaren helburuetariko bat.

Goizeko 09:00etatik 14:00etara izango da jardunaldia eta ikastetxeetako hizkuntzen elkarbizitzaren inguruko hausnarketa egingo dute aditu eta katedradunek. Ginebrako Unibertsitatean Hizkuntzen didaktikan katedradun den Joaquín Dolzek "Hiru hizkuntza ikastetxean; arazoa edo aukera" hitzaldia eskainiko du. Ondoren, Jasone Cenoz Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) katedradunak "Eleaniztasuna eta translanguaging ikasgelan" gaia izango du ardatz. Itziar Idiazabal EHUko katedradunak, berriz, "Irakaskuntza eleaniztunerako ingeniari-tza didaktikoa" hizketaldia eskainiko du. Gainera, jardunaldian Nafarroako ikasleen hizkuntza ohituren ikerketa aurkeztuko da.

Egitaraua Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntza aniztasunean adituak itxiko du. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko katedradunak



Eguneko kartela.

"Hizkuntza guztiak berdinak dira, hizkuntza guztiak ezberdinak dira" berbaldia osatuko du.